

DAVANT, J.-L.: **Aberri eta klase burruka euskal Mugimenduan** (Iratzi saila), Elkar, Baiona 1977, 295 or.

Titulua irakurritz eta autorea ezagutuz, jakin genezake, besterik gabe, nondik nora doan liburua bera: «Aberri burruka eta klase burruka ez ditut elkarretatik bereizten. Bi arazo horiei begira, euskal mugimendua osotzen duten indarrek zer dioten eta zer dagiten ikertu eta azaldu nahi nuke hemen» dio berak.

Hari honetatik, hona hemen aurkibidea: Aintzin-solas; I. Euskal mugimenduaren etorkia; II. Euzko Alderdi Jeltzalea; III. Euzkadiko Langile Klasearen Elkartasun ixilkariak; IV. ETA: Euzkadi ta Askatasuna; V. Ukatzailleen, bereizleen eta baliatzaileen eraso; VI. Enbata Oldea; VII. Ezker Abertzale baten beharra; VIII. Geroari begira; IX. Azken berri; X. Bilduma: Euskal Indarrak.

Askapen soziala — askapen nazionala: bien arteko dialektika izan da, azken hamabost urteotan bereziki, Euskal Herrian, ETAre inguruan batez ere, ibili den burrukaren eta eztabaidaren gako. Burgosko epaiketaren inguruan jo zuen bere gailurra agian eztabaida horrek, ETAre barruko eten nagusienetarikoa sortuz. Autorearen azterketa, hain zuzen ere, Burgosko epaiketa hartatik abiatzen da.

Uste dut, EAJ-PNVren pentsaera eta jokabidea aztertzean, gerra aurretik ezkerretik zituen taldeen, bereziki ANVren pentsaera eta jokabidea nabarmenago jarri behar zitukeela autoreak.

## **Erdal liburuak Euskal Herriaz**

ALTABIZKAR: **Euskadi Nucléaire. (Dossier n.º 1. Le dossier des centrales nucléaires au Pays Basque)**. Elkar, Baiona, 1974. 46 or. 30 x 21 zm.

*Offset*-ean multikopiatutako liburuxka honek 5 kapitulu ditu: Les Centrales Nucléaires et leurs risques. La Politique Énergétique Espagnole. Les Basques et l'Atome. Non á la Côte Nucléaire. Conclusion (provisoire).

Duela lau urte idatzirikoa liburuxka honek, ez du gaurkotasanean fitsik galdu, azken hilabeteotako gertakariekin. Aurkibidetik atera daitekeenez, azterbegi askotatik heldu dio Altabizkar lan-taldeak zentrale nuklearren arazoari. Bata bestearen ondotik datoz, fisika nuklearraz oharrak, giza organismoarekiko eraginak, energi iturrien hauzia, espainiako energi sorburuen arazoa, Euskal Herriko alternatibak, eta abar. Euskal itsasertz nuklearren aurka ateratzen dira. Erabakiak hartu aurretik, 10 bat urtetako itxaronaldia eskatzen du Altabizkar-ek ondorio horietan.